El Parlamento de Navarra, en colaboración con la Universidad Pública de Navarra, la Universidad de Navarra y los Centros asociados de la Universidad Nacional a Distancia de Pamplona y de Tudela, desea fomentar entre los estudiantes universitarios el estudio del Derecho Parlamentario y para ello acordó crear el "Premio Parlamento de Navarra. Premio al estudio del Derecho Parlamentario", con el objeto de estimular y favorecer el conocimiento y la investigación en torno a la institución parlamentaria entre los estudiantes de las Facultades de Derecho de los centros universitarios navarros.

Por acuerdo de la Mesa del Parlamento de Navarra de 16 de abril de 2018 se convoca el III Premio Parlamento de Navarra. Premio al estudio del Derecho Parlamentario", con arreglo a las siguientes bases.

---

Nafarroako Parlamentuak, lankidetzan arituta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, Nafarroako Unibertsitatearekin eta UNED-Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Iruñeko eta Tuterako zentro elkartuekin, Zuzenbide Parlamentarioaren ikaskuntza sustatu nahi du unibertsitateko ikasleen artean eta, horretarako, "Nafarroako Parlamentua saria. Zuzenbide Parlamentarioaren ikaskuntza sustatzeko saria" sortzea erabaki zuen. Sariaren xedea da erakunde parlamentarioaren inguruko ezagutza eta ikerketa bultzatzea eta piztea Nafarroako unibertsitateetako Zuzenbide Fakultateetako ikasleen artean.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 16an hartutako erabakiaren bidez, "Nafarroako Parlamentua III. Saria. Zuzenbide Parlamentarioaren ikaskuntza sustatzeko Saria"ren deia egiten du. Hona hemen oinarriak.

PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Universidad de Navarra

UNED PAMPLONA TUDELA

# III PREMIO PARLAMENTO DE NAVARRA

# NAFARROAKO PARLAMENTUA III. SARIA

**Premio al estudio del Derecho Parlamentario**

**Zuzenbide Parlamentarioa ikertzeko saria**

## BASES

**Primera.** Se convoca el III Premio Parlamento de Navarra para trabajos de investigación sobre el Derecho Parlamentario.

**Segunda.** El premio estará destinado a los alumnos de Grado matriculados en el curso 2017/2018 y en el curso 2018/2019 en las Facultades de Derecho de la Universidad Pública de Navarra, de la Universidad de Navarra y de la UNED de Pamplona y de Tudela.

**Tercera.** Los trabajos versarán sobre temas y materias directa y específicamente estudiadas por el Derecho Parlamentario.
Serán inadmitidos los trabajos que no traten sobre cuestiones directamente relacionadas con el Derecho Parlamentario, con el poder legislativo y con la institución del Parlamento.
Los trabajos deberán ser originales e inéditos y no publicados en ningún formato o soporte público, ni en internet.
Los trabajos no podrán ser copias ni reproducciones parciales de otros realizados por otros autores.
Los trabajos podrán ser individuales o en coautoría.
Los trabajos se podrán presentar en castellano o en euskera, y tendrán una extensión mínima de 10 folios y máxima de 20 (a 1,5 espacios, letra Times New Roman, Cuerpo 12).

**Cuarta.** El premio está dotado con la cantidad de 2.000 euros. Atendiendo al número y a la calidad de los trabajos, el Jurado podrá conceder un accésit de 500 euros.
El Jurado premiará el mejor de los trabajos y valorará de manera especial la actualidad y la originalidad, la calidad en el tratamiento del tema, así como la aportación personal. El Jurado podrá declarar desierto el premio si así lo considera.
Los premios estarán sometidos a la retención correspondiente por constituir rendimientos del trabajo.

**Quinta.** El plazo para la presentación de los trabajos finalizará el día 30 de noviembre de 2018.
Los trabajos deberán presentarse en el Registro General del Parlamento de Navarra, calle Navas de Tolosa nº 1 de Pamplona, (el horario del Registro General del Parlamento de Navarra es de lunes a jueves de 9:00 a 17:30 horas, y el viernes de 9:00 a 14:30 horas).
Las personas que deseen concurrir al premio deberán presentar un ejemplar en papel en el Registro General del Parlamento de Navarra y otro en PDF enviado al correo electrónico registro@parlamentodenavarra.es. En ninguno de los dos envíos deberá constar la identidad del autor del trabajo presentado.
En el trabajo no aparecerá el nombre del autor o de los autores, ni el de su Universidad o Centro asociado, de tal manera que no pueda conocerse ninguna referencia al autor del trabajo presentado.
En el Registro General del Parlamento de Navarra se entregará un sobre cerrado con el título del trabajo en el exterior. En ese sobre se introducirá el trabajo presentado y un sobre, que asimismo llevará el título del trabajo en el exterior, que deberá incluir el nombre del autor en el interior, su dirección postal, correo electrónico y un número de teléfono de contacto, e incluirá, además, un justificante de hallarse matriculado en el curso 2017/2018 o en el curso 2018/2019 en Grado en Derecho de la Universidad Pública de Navarra, de la Universidad de Navarra, o de los Centros asociados de la UNED de Pamplona o de Tudela.

**Sexta.** El Jurado encargado de conceder el Premio estará compuesto por personas designadas por el Parlamento de Navarra y los centros universitarios, que no hayan participado en la elaboración de los trabajos.

**Séptima.** No cabrá ningún recurso contra la decisión del Jurado, que está facultado para interpretar estas bases y adoptar los acuerdos que considere convenientes.
La presentación de un trabajo al premio implica el conocimiento y aceptación de estas bases.

## OINARRIAK

**Lehena.** "Nafarroako Parlamentua Saria"ren III. deialdia egiten da, Zuzenbide Parlamentarioari buruzko ikerlanak egiteko.

**Bigarrena.** Saria graduko ikasleei zuzentzen zaie, zeinak 2017/2018 eta 2018/2019 ikasturteetan matrikulatuta egon beharko baitira Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, Nafarroako Unibertsitatearen eta UNED-Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren Iruñeko eta Tuterako zuzenbide-fakultateetan.

**Hirugarrena.** Lanak Zuzenbide Parlamentarioak zuzenean eta berariaz aztertzen dituen gai eta alorrei buruzkoak izanen dira. Ez dira onartuko Zuzenbide Parlamentarioarekin, botere legegilearekin eta Parlamentuaren erakundearekin zerikusi zuzenik ez duten gaiei buruzko lanak.
Lanek jatorrizkoak eta berriak eta inongo formatu edo euskarri publikotan edo Interneten argitara eman gabeak izan beharko dute. Lanak ezin izanen dira izan beste egile batzuek egindako lan batzuen kopiak edo erreprodukzio partzialak.
Lanak bai bakarka bai taldean eginikoak izan daitezke.
Lanak gaztelaniaz edo euskaraz aurkeztu ahalko dira, eta gutxienez 10 folioko luzera izanen dute eta gehienez 20 foliokoa (1,5eko lerroartea, Times New Roman letra-tipoa, 12ko letra-tamaina).

**Laugarrena.** Sariak 2.000 euroko zuzkidura izanen du. Epaimahaiak 500 euroko accesit bat eman ahalko du, lanen kopuruari eta kalitateari erreparatuta.
Epaimahaiak lanik onena sarituko du, eta modu berezian baloratuko ditu gaurkotasuna, originaltasuna eta gaiaren tratamenduaren kalitatea, bai eta egindako ekarpen pertsonala ere. Epaimahaiak hutsik deklaratu ahalko du saria, horrela jotzen baldin badu.
Sariei kasuko atxikipena aplikatuko zaie, lan-etekintzat jotzen baitira.

**Bosgarrena.** Lanak aurkezteko epea 2018ko azaroaren 30ean amaituko da.
Lanak Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (Navas de Tolosa kalea, 1 - Iruña). Erregistroaren ordutegia honako hau da: 09:00etatik 17:30era astelehenetik ostegunera, eta 09:00etatik 14:30era ostiralean.
Sariketan parte hartu nahi duten pertsonek paperean aurkeztu beharko dute ale bat Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean, eta PDF formatuan beste ale bat bidali beharko dute erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus helbide elektronikora. Bidalketa horietan ezin izanen da adierazi aurkeztutako lanaren egilearen nortasuna.
Aurkezturiko lanetan ez da agertuko egilearen edo egileen izenik, ez eta haien unibertsitate edo ikastetxe elkartuarenik ere, halako moldez non ezinezkoa izanen den aurkeztutako lanaren egilearen inolako erreferentziarik ezagutzea.
Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean gutunazal itxia aurkeztuko da, lanaren izenburua kanpoaldean idatzita duela. Gutun-azal horretan, aurkeztutako lanaz gain, beste gutun-azal bat sartuko da, kanpoaldean lanaren izenburua idatzita duela, eta horren barruan jasoko dira egilearen izena, posta helbidea, posta elektronikoa eta harremanetarako telefono zenbaki bat. Gainera, egiaztagiri bat sartuko da, 2017/2018 edo 2018/2019 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko, Nafarroako Unibertsitateko edo Iruñeko edo Tuterako UNEDen ikastetxe elkartuetako Zuzenbideko Graduan matrikulatuta egoteari buruzkoa.

**Seigarrena.**
Saria emanen duen epaimahaia Nafarroako Parlamentuak eta unibertsitateek izendatutako pertsonek osatuko dute, eta ezin izanen dute parte hartzerik izan aurkeztutako lanen prestaketan.

**Zazpigarrena.**
Ezin izanen da inongo errekurtsorik aurkeztu epaimahaiaren erabakiaren aurka. Epaimahaiak ahalmena dauka oinarri hauek interpretatu eta egokitzat jotzen dituen erabakiak hartzeko. Sariketara lan bat aurkezteak esan nahi du oinarri hauek ezagutu eta onartzen direla.